# 2025 BILBAO

OTSAILAK 27 - 4 MARZO

## ARATUSTEAK - CARNAVALES



Bilbao UDALA AYUNTAMIENTO

BILBOKO KONPARTSAK

## AGURRA - AURKEZPENA

Neguari agur esateko ordua da aurten ere, hotza gorputzetik astintzeko, barrez, dantzaz, pozez eta isekaz kaleak berriz ere hartzeko garaia. Asmatu duzue, bai, Aratusteak ditugu ate joka! Higi, moja, momo, hartz eta fraiskuak kalera aterako gara elkarrekin, martxoa hasi orduko, Farolin eta Zaranbolasekin batera.

Aurten Bilbok ezkutatzen dituen istorio berezi guztiek, harrigarriek eta irrigarriek, beteko dituzte plazak aste berezi honetan, hortaz bilatu, galdetu, deskubritu Bilboko hormek, espaloiek eta bizilagunek gordetzen dituzten sekretuak!

Egitaraua beteta dago aurten ere herritar guztiontzat, eta edozelako dantzazalek, kulturzalek, mamarratxeozalek, kalezalek eta, noski, mozorrozalek bere lekua topatuko du hurrengo orriotako programazio anitzean.

Gure mozorro eta jarrerekin egin dezagun gure buruaz eta autoritateaz barre, inola, inoiz ez lagun hurkoaz, inola, inoiz ez era mingarrian; aurten ere ez ditugu jarrera edo mozorro arrazista, matxista edo LGTBIQ+foboak onartuko. Borroka dezagun denok aske izango garen Bilbo baten alde.

## *SALUDO - PRESENTACIÓN*

*Llega, un año más, el momento de decir adiós al invierno, de sacudirse el frío del cuerpo, de volver a tomar las calles con risas, bailes, alegrías y burlas. ¡Habéis acertado, sí, tenemos los carnavales llamando a la puerta! Higis, monjas, momos, osos y frailes saldremos juntas a la calle, a primeros de marzo, acompañados de Farolín y Zarambolas.*

*Esta semana tan especial estará llena este año de todas las historias que esconde Bilbao, sorprendentes y divertidas, así que ¡busquemos, preguntemos, descubramos los secretos que guardan las paredes, aceras y habitantes de Bilbao!*

*El programa de actividades vuelve a estar lleno para todas las vecinas: para amantes de la danza, la cultura, el mamarracheo, la calle y, por supuesto, los disfraces.*

*Con nuestros disfraces y actitudes nos reímos de nosotros mismos y de la autoridad, de ninguna manera ni nunca del prójimo, de ningún modo ni nunca de forma hiriente; tampoco este año aceptaremos actitudes o disfraces racistas, machistas o LGTBIQ+fobos. Luchemos por un Bilbao en el que todas seamos libres.*

Kartelaren egilea·autora del cartel: **Elena Echeverría Arenilla**
Diseinua·diseño: **Logoritmo.** Imprimaketa·impresión: **Editorial MIC edizioa.**
Argitaratzen du·edita: **Bilboko Udala-Ayto Bilbao+ Bilboko konpartsak.**





Aurten ere, Bilbok mozorrorik onena jantziko du, umorez, musikaz eta alaitasunez beteriko Aratusteez gozatzeko. Zalantzarik gabe, egun dibertigarriak ditugu aurretik, neguko festarik gogaikarrienean. Urteko sasoi honetan gure irudimena lanean jartzeko unea da hiribildua kolorez bete dezagun.

Oraingo honetan, Aratusteak otsailaren 27tik martxoaren 4ra ospatuko ditugu. Egun horietan kalera irtengo gara gustu eta adin guztietarako pentsatutako ekitaldien eta jardueren programazioaz gozatzeko, pertsona, elkarte eta erakunde askoren ekarpenei eta elkarlanari esker prestatu dena. Espero dugu bilbotarrek eta Aratusteetan Bilbo bisitatzen duten guztiek zentzumen guztiekin gozatzea.

Programa parte-hartzailea da, eta espero dugu inspirazio iturri izatea egun hauetan Bilbon erakusten dugun asmamen eta originaltasun guztia praktikan jartzeko. Eta jakina, alaitasuna eta umore ona, benetako Aratustearen esentzia, protagonista izan daitezen txoko bakoitzean.

Sei eguneko jaia dugu zain, eta Bilboko Aratusteetako bi pertsonaia nagusiak izango ditugu gurekin, Farolin eta Zaranbolas, hain zuzen ere.

Aratusteetako alaitasunak, ilusioak eta esentzia tipikoak gurea egiteko unea da, gure hiriko leku guztiak kolorez eta lotsagabekeriaz bete dadin. Hori bai, beti errespetuz eta edozein erasoren aurrean zero tolerantzia erakutsiz.

*Un año más, Bilbao se viste con su mejor disfraz para disfrutar de unos Carnavales llenos de humor, música y alegría. Sin duda, nos esperan días de diversión, en la que es posiblemente la fiesta más desenfadada del invierno y en la que nos permitimos dar rienda suelta a la imaginación para poner el toque de color a nuestra Villa durante esta época del año.*

*En esta ocasión, celebraremos los Carnavales del 27 de febrero al 4 de marzo, días en los que saldremos a la calle para disfrutar de toda una programación de actos y actividades pensados para todos los gustos y edades, preparados gracias a las aportaciones y el trabajo en común de muchas personas, asociaciones e instituciones. Esperamos que bilbaínas, bilbaínos y todas las personas que visiten Bilbao durante los días de Carnaval disfrutéis con todos los sentidos.*

*Se trata de un programa participativo que esperamos que sirva de inspiración para poner en práctica todo el ingenio y originalidad de la que siempre hacemos gala en Bilbao en estas fechas. Y por supuesto, para que la alegría y el buen humor, auténtica esencia carnavalera, sean protagonistas en cada esquina.*

*Nos esperan seis días de fiesta, en la que nos acompañarán los dos personajes por excelencia del Carnaval de Bilbao, como son Farolín y Zarambolas, que nos harán reír y disfrutar con su particular forma de ser.*

*Es momento de dejarnos llevar por la alegría, la ilusión y la esencia típica de los Carnavales, que cada rincón de nuestra Villa se llene de color y desenfado. Eso sí, siempre con respeto y mostrando tolerancia cero frente a cualquier tipo de agresión.*

**ITZIAR URTASUN JIMENO**
Jaietako Zinegotzia eta Kultura eta Gobernantza Saileko zinegotziaren albokoa.
Concejala de Fiestas y adjunta a Cultura y Gobernanza.

## FAROLIN



### JOSU CAMARA

**AKTOREA ETA ZUZENDARIA**
ACTOR Y DIRECTOR

Bilboko hainbat auzotan hazi, bizi eta harremandu da. Kukubiltxo Antzerki Taldera batu zen eta orduan antzerki mundura egin zuen salto, eta hainbat urtez bertako kide eta zuzendari izan da. Euskararen, kulturaren eta mundo berdinzaleago baten sustatzailea izan da.

Diferentes barrios de Bilbao le han visto crecer, vivir y relacionarse. Dio el salto al mundo del teatro cuando se unió a Kukubiltxo Antzerki Taldea y del que ha sido miembro y director durante años. Impulsor del euskera, la cultura y un mundo más igualitario.



BILBAO·2025 ARATUSTEAK·CARNAVALES

## ZARANBOLAS



### OIHANA BARTRA

**BERTSOLARIA**

Oihanak bertsolaritzarekiko duen pasioa da definitzen diona, izan ere 15 urterekin hasi zen bertsoak inprobisatzen bere auzoko, Santutxuko, bertso eskolan. Ordutik hona plazaz plaza aritu da bertsotan herri eta hiriburu desberdinetan Txapelketa ezberdinetan, bere arrastoa utzi du.
Oihanak argi dauka: bizitza kantuan eta kalean bizi da.

Si algo define a Oihana es su pasión por el bertsolarismo, un arte que lleva en la sangre desde que con 15 años comenzó a improvisar bertsos en la Bertso Eskola de su barrio, Santutxu. Desde entonces, ha recorrido diferentes pueblos y plazas, dejando su huella en diferentes campeonatos.
Si algo tiene claro es que la vida se canta y se vive en la calle.

## FAROLIN ETA ZARANBOLAS

Pertsonaia horiek dira Bilboko Aratusteetako jatorrizko ezaugarri bereizgarri bakarrak.

**Farolin** denok ezagutzen dugun harroputza da. Ez da Bilbokoa, Bilbo berea baita, eta bere leloa "Semper Plus Ultra" izan liteke (beti urrunago).

**Zaranbolas**, berriz, ondobizia da, ezerk ozpintzen ez duen horietakoa. Bere leloa, zalantza barik, "Carpe Diem" da (gozatu ahal duzun bitartean).



## NORTZUK DIRA FAROLIN ETA ZARANBOLAS?

Biak alderatuta, **Farolin** eta **Zaranbolas** honelakoak lirateke:

Bilboko koloreak balira, **Farolin** zuria litzateke, "puntarengo" jantzita doana; **Zaranbolas** gorria litzateke, errepublikanoa, edan zalea eta tomateroa.

Gabon gaueko afarian, **Farolinek** txitxardinak ditu amets eta **Zaranbolasek** barraskiloak jaten ditu.

**Farolinek** gorbata ikusgarriak erabiltzen ditu eta **Zaranbolasek,** beharrezkoa izanez gero, tximeleta-begizta.

**Farolinek** gidatzea atsegin du; **Zaranbolas** "taxisean" joaten da batetik bestera.

**Farolinek** bertatik bertara ikusten ditu Athletic-en partiduak; **Zaranbolasek**, txokoan.

**Farolinek** idorreriarako joera du, eta **Zaranbolasek,** berriz, patxada handiz obratzen du.





## FAROLÍN Y ZARAMBOLAS

Estos personajes son el único símbolo original y distintivo de los carnavales de Bilbao.

**Farolín** representa a ese farolero que todos reconocemos, que no es de Bilbao porque Bilbao es suyo, y su lema podría ser "Semper Plus Ultra" (siempre más allá).

**Zarambolas** es el adalid del buen vivir, ese tipo de gente que no se deja amargar por nada de este mundo ni del venidero y, sin duda, su lema es "Carpe Diem" (disfruta el momento).



## ¿QUIÉNES SON FAROLÍN Y ZARAMBOLAS?

Por comparación, **Farolín** y **Zarambolas** vendrían a ser algo así:

De colores de Bilbao, **Farolín** es blanco, de ir siempre "de punta en blanco", y **Zarambolas** el rojo, republicano, bebedor y tomatero.

Para la cena de nochebuena, **Farolín** aspira a las angulas y **Zarambolas** come caracoles.

**Farolín** usa corbatas vistosas y **Zarambolas**, llegado el caso, pajarita.

A **Farolín** le gusta conducir, **Zarambolas** viaja en "taxi".

**Farolín** va a ver los partidos del Athletic al campo, **Zarambolas** los suele ver en el txoko.

**Farolín** tiene tendencia al estreñimiento, mientras que **Zarambolas** defeca con oronda placidez.

# FAROLIN ETA ZARANBOLASI EPAIKETA

# JUICIO A FAROLÍN Y ZARAMBOLAS



## OTSAILAK 28 BARIKUA
## VIERNES 28 DE FEBRERO

| 18:15 | 19:00 | 19:30 |
| --- | --- | --- |
| ARRIAGA PLAZA<br>**Farolin eta Zaranbolasi atxilotzea** | PLAZA BARRIKO KARPA<br>**Epaiketa Farolin eta Zaranbolasi** | PLAZA BARRIKO KARPA<br>**Farolin eta Zaranbolasi irain publikoa** |
| PLAZA ARRIAGA<br>Detención de Farolín y Zarambolas | CARPA PLAZA NUEVA<br>Juicio a Farolín y Zarambolas | CARPA PLAZA NUEVA<br>Escarnio público de Farolín y Zarambolas |





Bilbao Udala Ayuntamiento · Bilboko Konpartsak

## ZAPATUA 22 *SÁBADO*

**19:30** **Kafe Antzokia**
Ateen irekiera / *Apertura de puertas*

**20:00** **Kafe Antzokia**
Aratusteetako Koplen lehiaketa 2025
*Concurso de Coplillas de carnaval 2025*

**22:00** **Kafe Antzokia**
Aratusteetako Kontzertua / *Concierto de carnavales*
**BAD SOUND SYSTEM**

## EGUENA 27 *JUEVES*

**12:00** **BIRA Kulturgunea**
Farolin eta Zaranbolasen maskara trukea
*Cambio de máscaras de Farolín y Zarambolas*
**TXIRENADAK**

**18:30** **Arriaga plazatik / *Desde Plaza Arriaga***
Maskara zaharren kalejira
*Kalejira de máscaras antiguas*
**DABAYAN batukada**

**19:30** **Plaza Barriko karpa / *Carpa Plaza Nueva***
Farolin eta Zaranbolasi ongi etorria
*Bienvenida a Farolín y Zarambolas*

**20:00** **Unamuno plazatik / *Desde Plaza Unamuno***
Maskara berrien kalejira / *Kalejira de máscaras nuevas*
**ORKRESTA elektrotxaranga**

## BARIKUA 28 *VIERNES*

**10:30** **Albiako Lorategitik / *Desde Jardines de Albia***
Ibilbidea: Albia Lorategiak - Kale Nagusia - Areatza - Plaza Barriko karpa / *Recorrido: Jardines de Albia - Gran Vía - Arenal - Carpa Plaza Nueva*
**BILBOKO IKASTETXEEN DESFILEA**
***DESFILE DE CENTROS ESCOLARES DE BILBAO***

**11:00** **Plaza Barriko karpa / *Carpa Plaza Nueva***
Txokolatada eta haur ikuskizuna
*Chocolatada y espectáculo infantil*
**ZONBI FESTA** Panpotx kultur Elkartea

**17:45** **Udaletxetik / *Desde el Ayuntamiento***
Farolin eta Zaranbolasekin kalejira **SAMA SIKU** fanfarrearekin / Kalejira de Farolín y Zarambolas con la fanfarrea **SAMA SIKU**

**18:15** **Arriaga plaza / *Plaza Arriaga***
Farolin eta Zaranbolas atxilotzea
*Detención de Farolín y Zarambolas*

**19:00** **Plaza Barriko karpa / *Carpa Plaza Nueva***
Epaiketa Farolin eta Zaranbolasi + Irain publikoa
*Juicio a Farolín y Zarambolas + Escarnio público*

**20:00** **Plaza Barriko karpa / *Carpa Plaza Nueva***
Aratusteetako kopla txikietako irabazleen emanaldia
*Actuación ganadores / as de las Coplillas de Carnaval*

**20:45** **Plaza Barriko karpa / *Carpa Plaza Nueva***
Aretoko dantzak / *Bailes de Salón*
**BILBAO SOZIAL DANTZA**

**22:45** **Plaza Barriko karpa / *Carpa Plaza Nueva***
**ASIER BILBAO** "1000 KOLORE" Show





## ZAPATUA 1 *SÁBADO*

**11:00-14:30** **Plaza Barriko karpa / *Carpa Plaza Nueva***
Umeentzako tailerrak / *Talleres infantiles*

**12:00-14:30** **Alde Zaharretik / *Por el Casco Viejo***
Irteera Arriaga Plazatik / *Salida desde Plaza Arriaga*
Erraldoiak eta buruhandiak / *Gigantes y cabezudos*
**BIZKAIKO DANTZARIEN BILTZARRA**

**12:00** **Plaza Biribila / *Plaza Circular***
Farolin eta Zaranbolasekin esparrua zabaltzea
*Apertura de recinto con Farolín y Zarambolas*

**12:00-14:30** **Urkijo eta Mazarredo zumarkaleen artean**
***Entre las alamedas Urquijo y Mazarredo***
**GARGANTUA**

**12:00-14:30** **Berastegi kaleko metro irteeran**
***Salida metro Calle Berastegi***
"SELFI" sardinarekin eta banakako mozorro lehiaketa
*"SELFI" con la sardina y concurso individual de disfraces*

**12:15** **Kale Nagusitik / Por *Gran Vía***
**Bilboko gaiteroak** eta **DUNBOTS** Fanfarria

**12:15** **Plaza Biribilako eszenatokian**
***Escenario Plaza Circular***
Aitor García eta Jone Garcíarekin *dantza tailerra Taller de danza*

**12:30-15:30** **Kale Nagusia / *Gran Vía***
Bertako produktuen merkatua
*Mercado de productos locales*

## ZAPATUA 1 *SÁBADO*

**GURE LURREKO MERKATUA**

**12:30** **Arriaga plaza / *Plaza Arriaga***
Umeen Erromeria dantzak / *Romería de danzas infantil*
**BIZKAIKO DANTZARIEN BILTZARRA**
- Euria izanez Esperantzako frontoian izango dira aforoa bete arte / *En caso de lluvia en el frontón de la Esperanza hasta completar aforo*

**13:00** **Plaza Biribilako eszenatokian**
***Escenario Plaza Circular***
Kontzertua / *Concierto*
**¡BILBAO LINDY BAND!**

**13:00** **Kale Nagusia (Gargantuaren inguruan)**
***Gran Vía (en torno a Gargantua)***
Zirko antzezlana / Espectáculo *de circo*
**VADEMEKUN** Zirkozaurre Zirko konpainia

**16:00** **Portuko Markesaren kalea**
***Calle Marqués del Puerto***
ARATUSTEETAKO KALEJIRA ETA MOZORRO LEHIAKETA
Izen ematearen irekiera. **Oinarriak 20 Or.**
*KALEJIRA Y CONCURSO DE DISFRACES DE CARNAVAL*
*Apertura de inscripciones*. **Bases pág. 20**

**16:45** **Plaza Biribilako eszenatokia**
***Escenario Plaza Circular***
Banakako mozorro lehiaketaren sari banaketa
*Reparto premios concurso individual de disfraces*

**16:45** **Portuko Markesaren kalea**
***Calle Marqués del Puerto***
Erraldoiak / *Gigantes*



BILBAO·2025 ARATUSTEAK·CARNAVALES

## ZAPATUA 1 *SÁBADO*

**17:00** **Portuko Markesaren kalea**
***Calle Marqués del Puerto***
KALEJIRA ETA ARATUSTEETAKO MOZORRO LEHIAKETA
Epaimahaiaren aurreko pasearen hasiera
*KALEJIRA Y CONCURSO DE DISFRACES DE CARNAVAL*
*Comienzo del pase frente al jurado*
Ibilbidea: Biribila plaza - Areatza / *Recorrido: Plaza Circular - Arenal*
IZEN-EMATEA 16:00etan Portuko Markesaren kalean
*INSCRIPCIÓN a las 16:00 en la Calle Marqués del Puerto*

**17:15-20:30** **Areatza / *Arenal***
Kontzertua / *Concierto*
**AKERBELTZ erromeria**

**17:30-20:00** **Berastegi kalea / *Calle Berastegui***
"SELFI" Sardinarekin / *"SELFI" con la Sardina*

**20:30** **Plaza Barriko karpa / *Carpa Plaza Nueva***
Mozorroen lehiaketako sari-banaketa
*Entrega de premios del Concurso de Disfraces*

**21:30-00:30** **Plaza Barriko karpa / *Carpa Plaza Nueva***
**"ARATUSTEEN MUSIKAZ BLAI"**
Kontzertuak / *Conciertos*

**21:30 MIKOSIS**
Aste Nagusia sariaren irabazlea
Ganadora del premio Aste Nagusia
VillaSoundBilbao 2024

**23:00 NONBAIT** erromeria

## DOMEKA 2 *DOMINGO*

**10:45** **Plaza Barriko karpa / *Carpa Plaza Nueva***
Indaba lehiaketarako izen-ematearen irekiera
Apertura de inscripciones para el concurso de alubias

**11:00** **Plaza Barriko karpa / *Carpa Plaza Nueva***
**XIII. TORRADA LEHIAKETA** Izen-ematea eta aurkezpena
***XIII. CONCURSO TOSTADAS*** *Inscripción y entrega*

**12:00** **Plaza Barriko karpa / *Carpa Plaza Nueva***
Torrada lehiaketaren sari banaketa / Entrega de premios concurso de tostadas

**12:00-14:30** **Bilboko Alde zaharretik / *Por el Casco Viejo de Bilbao***
Irteera Bilboko Urrats Museotik
*Salida desde el Museo de Pasos*
Erraldoiak eta buruhandiak / *Gigantes y cabezudos*
**BIZKAIKO DANTZARIEN BILTZARRA**

**13:30** **Txakur kaleko iturria / *Fuente de la calle del Perro***
*MADRILES* buruhandiaren aurkezpena
Presentación del cabezudo *MADRILES*

**13:30** **Plaza Barriko karpa / *Carpa Plaza Nueva***
**INDABA LEHIAKETA** (Indaben entrega 15 minutu lehenago edo geroago)
***CONCURSO DE ALUBIAS*** *(Entrega de las cazuelas en los 15 minutos anteriores o posteriores)*

**14:30** **Plaza Barriko karpa / *Carpa Plaza Nueva***
Indaba lehiaketako sari banaketa
Entrega de premios del concurso de alubias

**18:30** **Plaza Barriko karpa / *Carpa Plaza Nueva***
*"Dantzan gura dogu egin aratuste egunean!"*
**BETI JAI ALAI DANTZA TALDEA**



BILBAO·2025 ARATUSTEAK·CARNAVALES

## ASTELEHENA 3 *LUNES*

**12:30** **Plaza Barriko karpa / *Carpa Plaza Nueva***
Kontzertua familientzat / *Concierto familiar*
**BILBOKO UDALAREN BANDA + MITXEL SANTAMARINA eta IÑAKI MARURI**
Zuzendaria / *director:* **Iñaki Urkizu**

**16:30-19:30** **Plaza Barria / *Plaza Nueva***
Umeentzako tailerrak / *Talleres infantiles*

## MARTITZENA 4 *MARTES*

**12:30-14:30** **Plaza Barriko karpa / *Carpa Plaza Nueva***
Kontzertua / *Concierto*
**BILBOKO UDAL TXISTULARI BANDA + PICUENTOS TXONTXONGILO KONPAINIA eta GARAZI NAVAS (Akordeoia)**
Zuzendaria / *director*: **Gorka Zabaleta. "HARIAK"**

**19:00** **Plaza Barriko karpa / *Carpa Plaza Nueva***
Txokolatezko sardinen eta kandelen banaketa
Reparto de sardinas de chocolate y velas

**19:30** **Plaza Barritik / *Desde de la Plaza Nueva***
Sardinaren hiletaren hasiera
*Comienzo del entierro de la sardina*
Plaza Barria - Altxerri Kobazulo kalea - Kapelagile kalea - Gurutze kalea - Zamudioko Atea - Banco España kalea - Bidebarrieta kalea - Arriaga plaza
*Plaza Nueva - Cueva Altxerri - Sombrerería - Portal de Zamudio - Banco de España -Bidebarrieta - Plaza Arriaga*

**20:00** **Arriaga Plaza / *Plaza Arriaga***
Sardina erretzea / *Quema de la sardina*
***ZIRKOZAURRE:*** *"Sardinari Kantu bat!"*








## EZINTASUNEN BAT DAUKATEN PERTSONEK PARTE-HARTZEKO NEURRIAK

## MEDIDAS PARA LA INTEGRACIÓN DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD

Ikur hau daukaten jardueretan zeinu-mintzairaren interprete bat egongo da.

Todas las actividades señaladas con este signo cuentan con intérprete de lengua de signos.

Programa orokorraren transkripzioa braillera. Gune hauetan aurki daiteke: Udaleko herritarren arreta (San Agustin eraikina), ONCEren Egoitza (Pérez Galdós 11), Abandoko Udaltegia, La Bolsa Udal Zentroa eta Plaza Biribileko Bilbao Turismo Bulegoa.

Jaietako kartelaren deskribapen idatzia egingo du kartelaren autoreak. Deskribapen hau braillez idatzita egongo da goikaldean aipatzen diren puntu guztietan.

Transcripción al braille del programa general. Se podrá encontrar en los siguientes espacios: Atención ciudadana del Ayuntamiento (Edificio San Agustín), Sede de la ONCE (Pérez Galdós 11), Centro Municipal de Abando, Centro Municipal La Bolsa y Oficina de Bilbao Turismo de Plaza Circular.

El autor del cartel hará una descripción escrita. Esta, estará transcrita al braille en los puntos mencionados arriba.

### INFO+

Bilboko Udaleko Jaietako Saila
Área de Fiestas del Ayuntamiento de Bilbao
**atf@bilbao.eus · ☏ 94 420 31 47**



## GASTRONOMIA LEHIAKETAK
## CONCURSO GASTRONÓMICO

**Martxoak 2, domeka / *2 de marzo, domingo***
**Plaza Barrian / *Plaza Nueva***

### INDABA LEHIAKETA / *CONCURSO DE ALUBIAS*

**10:45** Izen-ematearen irekiera / *Apertura de inscripciones*

**13:30** Indaba kazuelen entrega 15 minutu lehenago edo geroago / *Entrega de las cazuelas de alubias en los 15 minutos anteriores o posteriores.*

**14:30** Indaba lehiaketaren sari banaketa / *Entrega de premios del concurso de alubias.*

### ARATUSTEETAKO XIII. TORRADA LEHIAKETA
### *XIII. CONCURSO TOSTADAS DE CARNAVAL*

**11:00** Torrada lehiaketa izen-ematea eta aurkezpena
*Inscripción y entrega del concurso de tostadas.*

**12:00** Torrada lehiaketaren sari banaketa
*Entrega de premios del concurso de tostadas.*

*Aukera beganoa ere onartuko da.*
*También se admitirá opción vegana.*

INFO+: **www.bilbokokonpartsak.eus**







## KARNABALETAKO KOPLAK

Urtebete bat pasatu eta,
gatozkizue kantari
Arenaleko hondartzatikan
Bilbao hankaz gora jarri!!

Mozorroturik dotore asko
ez jaun eta ez alkate
lege, eleizak, antzerakoak
bota ditzagun aparte.

DINBILI DAMBA, NOS HA PILLAO
PARROKO JAUNAK, EN PEKAU
EN PENITENTZIAN EDANGO DUGU
JO TA KE "AGUA DE BILBAO"

Orjia eta desenfrenua
betidanik ongarriak
Urtean zehar, ahal den neurrian
Eutsi behar dira biak.

Aspaldidanik ikasi dogu
zein den, bai, gure fedea
dugun erreinua bakarra dela
eguneroko kalea.

Ieloa: DINBILI DAMBA, NOS...

Nerbioiko ur garbien gainetik
Metroz "Gan Via" azpitik
sorgin haizeak ekarri gaitu
Plaza honetara pozik.

Betiko agertu ezkero
joan daitezen aguro
botila honen bits ederrakin
ez dira hemen seguro.

Ieloa: DINBILI DAMBA, NOS...

Despeditzeko ordua da ta
eztarria da urratu
isil, isilik esan digute
behar garela agurtu.

Konpartseroek bota ditugu
Koplatxo hauek bai arin
besterik gabe, agur bero bat
Karnabaltxoak, on egin!!

**BILBAO, 1985.eko Otsailak 16**

## 2025eko ARATUSTEETAKO MOZORRO LEHIAKETA
## *CONCURSO DE DISFRACES DE CARNAVALES 2025*

1. Bilboko Jaietako Batzorde Mistoak mozorrorik onenak sarituko ditu 2025eko martxoaren 1ean (Aratuste-zapatua). Lehiarik gabeko ikuskizuna da eta honako hauek sarituko dira:
   - Eskuz egindako mozorroak eta osagarriak baloratzea, baita horren atzean dauden ahalegin guztiak.
   - Urte honetarako aukeratu den gaiari garrantzia ematea. Aurten Bilbo da aukeratutako gaia.
   - Eszenografiak izaera kolektiboa izatea.

   Irizpide bakoitza 1etik 5era baloratuko da. 1 puntuazio baxuena eta 5 altuena izanda.

   Mozorro arrazistak, matxistak, homofoboak, lodifoboak... ez dira kontuan hartuko, beraz ez dira baloratuko.

2. Baldintza hauek betetzen dituen edonork (gizabanakoak, taldeak edo konpartsak) jaso dezake saria:
   - Jaigunera mozorrotuta joatea eta mozorroen arratsaldeko kalejiran parte -hartzea talde bezala (lau kidetik gorako taldeak). Kalejira 17:00etan hasiko da Portuko Markesa kalean eta plaza zirkularrean bukatuko da.
   - Epaimahaiaren aurrean, (Plaza Biribila), minutu bateko (gehienez) dantza edo performancea aurkeztu behar izango da.
   - Goizean zehar jaigunera mozorrotuta joatea banakako lehiaketan parte-hartzeko (hiru kide edo gutxiago).

1. La Comisión Mixta de Fiestas de Bilbao premiará, los mejores disfraces el día 1 de marzo, sábado Regular de Carnaval, de 2025. Se trata de un certamen no competitivo en el que se premiará y valorará:
   - Los disfraces y accesorios realizados a mano, así como de todos los esfuerzos que hay detrás.
   - Dar importancia al tema que se elija para este año. Este año el tema elegido es Bilbao.
   - Que la escenografía tenga un carácter colectivo.

   Cada criterio se valorará de 1 a 5. 1 siendo la puntuación más baja y 5 la más alta.

   Disfraces racistas, machistas, homófobos, gordófobos... no se tendrán en cuenta, por lo que no se valorarán.

2. Serán susceptibles de recibir premio todas aquellas personas (individuales, grupos o comparsas) que:
   - Acudan disfrazadas en grupo (cuatro o más participantes) al espacio festivo y participen en la kalejira de disfraces de la tarde, que comenzará a las 17:00 horas desde enfrente del edificio de la Diputación y acabará en la Plaza Circular.
   - Delante del jurado (Plaza Circular) se realizará un baile o performance de 1 minuto (máximo).
   - Acudan a participar en el concurso individual (grupo de tres personas o menos).



   - Berastegi-Kale Nagusia eskinan photocall bat egongo da epaimahai batekin 12:15etatik 14:30etara.

3. Izen-ematea; otsailaren 25ean (asteartea) baino lehenago, bidaliko da ***bulegoa@bilbokokonpartsak.eus*** helbide elektronikoaren bidez,Bilboko Konpartsen web orrialdean dagoen formularioaren bidez edo sariketaren egun berean 16:00 eta 16:30 bitartean taldeen kalejiran, Portuko Markesaren kalean. Banakako lehiaketan ez da beharrezkoa izen ematea.

   Izena emateko bidali beharreko informazioa:
   - PARTE-HARTZAILEAREN IZENA
   - MOZORROAREN IZENA
   - MOZORROAREN DESKRIBAPENA
   - TELEFONOA / HARREMANETARAKO IZENA
   - MUSIKA* (mp3/wav fitxategia)

   * Musika ez bidaltzekotan, edozein kanta aleatorio jarriko da. Ez da azken momentuko musikarik onartuko.

4. Jaietako Batzorde Mistoak izendatuko duen epaimahai bakarra egongo da, janzkietan eta arte eszenikoetan adituak diren eta Bilboko elkarteen sarean sartuta dauden pertsonek osatua.

   Plaza Biribileko eszenatokian jarriko den epaimahaiak mozorroak aztertuko ditu 1. puntuan azaldutako lehiarik gabeko irizpideen arabera eta saria merezi duten mozorroak aukeratuko ditu.

   - En la esquina de la Gran Vía con Berastegi habrá un photocall con un jurado desde las 12:15 hasta las 14:30.

3. Las inscripciones se realizarán previamente antes del 25 de febrero (martes) a través del correo ***bulegoa@bilbokokonpartsak.eus*** por el formulario que está en la página Web de Bilboko Konpartsak o el mismo día del certamen entre las 16:00 y las 16:30 horas en la calle Marqués del Puerto para los grupos. Para el concurso individual no hará falta una inscripción previa.

   Información necesaria para enviar la inscripción:
   - NOMBRE DE PARTICIPACIÓN
   - NOMBRE DEL DISFRAZ
   - DESCRIPCIÓN DEL DISFRAZ
   - TELÉFONO Y NOMBRE DE CONTACTO
   - MÚSICA* *(archivo mp3/wav)*

   *En caso de no enviar ninguna música, se pondrá una canción al azar. No se admitirá músicas de último momento.

4. Habrá un único jurado designado por la Comisión Mixta de Fiestas. Estará compuesto por personas entendidas en vestuario, artes escénicas e integrantes de la red asociativa de Bilbao.

   El jurado situado en el escenario de la Plaza Circular analizará los disfraces según los criterios no competitivos explicados en el punto número 1 e irá seleccionando los disfraces que, a su juicio, son merecedores de premio.



**5.** Sariketan gertatzen diren gorabehera guztiak ebazteko ahalmena edukiko du epaimahaiak. Hala ere, sariketaren oinarriak aldatu ahal izateko antolatzaileen baimena beharko da.

**6.** Kategoria eta sari-multzo hauek ezarri dira, honako balioa daukatenak*:

| | BANAKAKOAK | TALDEAK | KONPARTSAK |
|---|---|---|---|
| 1 | 175 € | 500 € | 1. diploma |
| 2 | 125 € | 300 € | 2. diploma |
| 3 | 100 € | 200 € | 3. diploma |

*Fruitu edo genero ludiko eta gastronomikoa.

**7.** Sarien jasoketa.

- Taldeen saria jasotzeko ezinbestekoa da 20:30etan aurkeztea Plaza Barriko karpan. Ekitaldi horretara ez aurkezteak sariari uko egin zaiola esan nahi du.
- Banakako saria jasotzeko ezinbestekoa da 16:45etan aurkeztea Plaza Zirkularreko eszenatokian. Ekitaldi horretara ez aurkezteak sariari uko egin zaiola esan nahi du.

**8.** Lehiaketan izena-ematean baimena ematen zaie antolatzaileei mozorrotutako pertsonaren irudia erabiltzeko.

**9.** Lehiaketan izena-emateak oinarriak oso-osorik onartzea dakar. Antolatzaileek oinarri hauek aldatzeko eskubidea dute.

**5.** El jurado estará facultado para resolver cuantas incidencias se produzcan durante el certamen, si bien cualquier decisión que signifique la alteración de las bases precisará la autorización de la organización.

**6.** Se establecen las siguientes categorías y premios valorados en*:

| | INDIVIDUALES | GRUPOS | KONPARTSAK |
|---|---|---|---|
| 1 | 175 € | 500 € | 1. diploma |
| 2 | 125 € | 300 € | 2. diploma |
| 3 | 100 € | 200 € | 3. diploma |

*Lotes de productos de naturaleza lúdica y gastronómica.

**7.** Para recibir los premios.

- Para recibir el premio en la categoría de grupos, es imprescindible presentarse en la carpa de la Plaza Nueva a las 20:30. La no presentación a este evento significa la renuncia automática al premio concedido.
- Para recibir el premio individual es imprescindible presentarse en el escenario de la Plaza Circular a las 16:45. La no presentación a este evento significa la renuncia automática al premio concedido.

**8.** La inscripción en el concurso autoriza a la organización a utilizar la imagen de las personas disfrazadas.

**9.** La inscripción en el concurso supone la plena aceptación de las bases. La organización se reserva el derecho de modificar las presentes bases.



## BAIETZ BARIK, EZETZ DA!

## ¡TODO LO QUE NO ES SÍ, ES NO!

KALEAK, GAUAK ETA JAIAK GUREAK ERE BADIRA ETA

DETRÁS DEL DISFRAZ NO TODO VALE



ERASO SEXISTARIK EZ ERANTZUNIK GABE

NINGUNA AGRESIÓN SEXISTA SIN RESPUESTA